

Nola ulertu ARGIAREN FAKTURA




Elektrizitatea funtsezkoa dugu egunerokoa; premiazkoa da faktura ondo ulertzea.

IDENTIFIKAZIO-BLOKEA

Indarrean dagoen araudiak **tartea lagatzen die konpainiei fakturak beren erara antolatzeko**. Oro har, datu hauek jasotzen dituzte: kontsumitzailea identifikatzeko beharrezko datuak, tarifak, kontratuaren datuak eta abar.

Datu guztiak ez dira nahitaezkoak, eta justu hor sartzen da jokoan enpresa merkaturatzailearen gardentasunarekiko konpromisoa.



KONTRATUAREN DATUAK

- ◆◆ **Kontratuaren zenbakia**. Enpresa hornitzailearekin harremanetan jartzeko eta zure kontratua identifikatzeko balioko dizu.
- ◆◆ Kontratuaren **titularra** eta titularren **IFK**.
- ◆◆ **Kontratututako tarifa**. Bi aukera daude:
 - ▶ **Merkatu arautua** (Kontsumitzaile Txikiarentzako Borondatezko Prezioa ere esaten zaio); 2.0TD tarifa dagokio. Tarifa horrek mugatu egiten ditu enpresen marjinak, merkatu elektrikoaren bilakaeraren arabera izaten da prezioa.
 - ▶ **Merkatu librea**. Enpresa bakoitzak zehazten ditu bai bere tarifak bai prezio-planak. *Merkatu librean jarduten duten merkaturatzaileek ezin dute merkatu arautuan jardun.*
- ◆◆ Kontratua **noiz** bukatuko den.



HORNIDURAREN DATUAK

- ◆◆ **HPKU kodea** (hornidura-puntuaren kode unibertsala): etxebizitza identifikatzen du eta kontagailuak irakurtzeko balio du.
- ◆◆ **HSS (Hirugarrenek sarea eskura izatea)** edo sarera sartzeko bidesaria. Tarifari dagokio hau. Merkatu arautuaren kasuan, 2.0TD.
- ◆◆ **Horniduraren helbidea**. Zure etxebizitza, edo halakoa.

- ◆◆ **HSS kontratuaren zenbakia**. Ez da kontratuaren zenbakiaren berdina.
- ◆◆ **Kontagailuaren zenbakia**.
- ◆◆ **Enpresa banatzailea**. Ez da fakturatzeko enpresa; elektrizitatea saltzen eta fakturatzeko enpresa merkaturatzailea da. Aldiz, enpresa banatzailea energia hornidura-puntu bakoitzera helarazteaz arduratzen den enpresa da.

FAKTURAZIO-DATUAK

- ◆◆ **Faktura-zenbakia**.
- ◆◆ **Fakturazio-aldia**. Tarte bat adierazten du, egun batetik bestera; argindarraren kasuan, hilabeteko tarte.

- ◆◆ **Fakturaren data**. Faktura noiz emango den.
- ◆◆ **Kobratzeko eguna**. Faktura noiz kobratuko den beranduenez, edo faktura kobratzeko eguna.


FAKTURAZIO-BLOKEA

Bloke honetan, fakturazioaren laburpena eta fakturaren xehetasunak adierazten dira

FAKTURAZIOAREN LABURPENA

Oso laburra izan daiteke, adibidez, **energia, zerbitzuak eta beste kontzeptu batzuk eta BEZa** (murriztua eta normala) azaltzen duena, edo zehatzagoa:

- ◆ **Potentzia:** potentziaren kostu finkoa eta kontsumoa zehaztuko ditu; datu horiek berezita agertuko dira fakturaren xehetasunean.
- ◆ **Kontsumitutako energia:** elektrizitatearen kostu finkoa eta energia-kontsumoa zehaztuko ditu; datu horiek berezita agertuko dira fakturaren xehetasunean.
- ◆ Elektrizitatearen gaineko **zergak**.
- ◆ **Kontagailua alokatzea**.
- ◆ **BEZa** (% 10 elektrizitatearen kasuan, aldi baterako, eta % 21 gainerako zerbitzuetan).
- ◆ **Beste zerbitzu batzuk**.



FAKTURAREN XEHETASUNA

Potentzia

Potentzia-zenbatekoa (edo termino finkoa); alegia, zure etxean kontratatutako potentziagatik ordaindu behar duzuna. Potentziaren arabera, adibidez, etxetresna elektriko gehiago edo gutxiago jar ditzakezu aldi berean martxan.

Hiru kontzeptuk definitzen dute, eta hiru balioen biderketa eginez kalkulatzen da:

▶ **Kontratatutako potentzia.** Bi ordutegi ditu:

▶ **Fakturazio-aldiaren iraupena, egunetan.**

Merkaturatzaileak aplikatzen duen potentziaren prezioa, €/kW eta egunetan adierazia (merkaturatzaile batzuek hileko edo urteko prezioan adierazten dute).



Gailurra: astelehenetik ostiralera, 08:00-24:00etara.



Harana: astelehenetik ostiralera, 24:00 - 08:00; eta larunbat, igande eta estatuko jaiegunetako 24 orduetan.



Potentzia desberdina kontrata dezakezu bai **Gailur-garaian** bai **Haran-garaian**. Adibidez, ibilgailu elektriko bat baduzu, interesgarria zenuke harana-garaian potentzia handiagoa kontratatuta edukitzea, azkarrago kargatzeko.



Zure fakturan **ikus dezakezu azken urtean zenbateko behar izandako gehieneko potentzia erabili duzun** bai Gailurrean bai Haranean. Behar izandako potentzia txikiagoa bada kontratatuta daukazuna baino, aurrezteko aukera daukazu hor, kontratatutakoa murriztuz. Horretarako, kontuan izan aldi berean funtzionatzen izango dituzun etxetresna elektriko guztiak.

FAKTURAREN XEHETASUNA

Energia

Kontsumoaren arabera fakturatzeko zaizuna. Honela kalkulatzen da: kontsumoa bider zure kontratuko ordu-tarte bakoitza:

- ▶ **Kontsumoa:** Kontsumitutako energia da, eta kWh-tan neurtzen da.
- ▶ **Energiaren prezioa:** Kontsumitutako kWh bakoitzaren kostua da, eta €/ kWh-tan neurtzen da.

Prezioa kontratatutako produktuaren arabera izango da. Merkatuko tarifa arautua baduzu, hiru ordutegi izango dituzu:

- 🕒 **Gailurra** (ordu garestienak) 10:00 - 14:00 bitartean, eta 18:00 - 22:00 bitartean, astelehenetik ostiralera.
- 🕒 **Lautada** (erdibideko prezioa) 08:00 - 10:00, 14:00 - 18:00 eta 22:00-00:00 bitartean, astelehenetik ostiralera.
- 🕒 **Harana** (ordu merkeenak) 00:00 - 08:00 bitartean, astelehenetik ostiralera, eta larunbat, igande eta estatuko jaiegunetako 24 orduak.

! Zure kontsumoak ordutegi horietara egokitzea lortzen baduzu, hortxe izango duzu tartea faktura **merkeagoa** izateko.

Merkatu libreko produkturen bat baduzu, gerta daiteke **tarifa laua** izatea.

Zerbitzuak eta beste kontzeptu batzuk.

- ▶ **Kontagailua alokatzea.** Fakturazio-egunak eta alokairu-prezioa biderkatuta ateratzen da.
- ▶ **Bestelako zerbitzu batzuk.** Zerbitzu gehigarriak dira, adibidez, etxea babesteko aseguruak, galdararen mantentze-lanak eta antzekoak. Zerbitzu gehigarri horiei ezin zaie BEZaren aldi baterako murrizketa aplikatu.

KONTUZ KONPAINIA ALDATZEAN!

- Argiaren fakturan agertzen badira ere, askotan, konpainiaz aldatzean, mantendu egiten da honelako zerbitzuen kontratua. Ez ahaztu merkatutzatzaileari berriaz jakinaraztea zerbitzu horietan ere baja eman nahi duzula.



INFORMAZIO-BLOKEA

Fakturak honako informazioa ere islatu behar du

- ◆◆ Bezeroari **arreta emateko telefonoa**, doakoa.
- ◆◆ **Matxurak** jakinarazteko telefonoa.
- ◆◆ **Kontsumoaren historikoak**. Zure oraingo kontsumoak eta beste garai batzuetako kontsumoak erkatzeko aukera emango dizu honek.
- ◆◆ **Irakurketak eta kontsumoak**. Kontagailuen irakurketa adierazten du.
- ◆◆ **Karbono-emisioak edo ingurumenean duen eragina**. Zenbat karbono isuri duzun adierazten dizute, kontsumoaren arabera
- ◆◆ **Zure elektrizitatearen jatorria**. Zuk jasotzen duzun argindarra sortzeko mixaren osaera azaltzen du (berriztagarria, gasa, ikatza ...)
- ◆◆ **MLBNren konparadorea**. QR kodea, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren elektrizitate-konparatzaileira jotzeko.
- ◆◆ Zure **fakturaren osaera**, grafikoki erakutsita.



 **BILBAO**

Errekalde zumarkalea 39 A
kb-bizkaia@kontsumobide.eus

 **DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN**

Easo 10
kb-gipuzkoa@kontsumobide.eus

 **VITORIA-GASTEIZ**

Done Jakue 11
kb-araba@kontsumobide.eus

 **900 84 01 20**

www.kontsumobide.eus

